

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5151

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 16koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Bateratu COVID-19 programan aurreikusitako laguntzen 2022ko ekitaldiko entitate onuradunen zerrenda; programa horren bidez, laguntzak ezartzen dira sendotze-jarduketak egiten dituzten eta COVID-19ak kaltetu dituen enpresentzat.

Dirulaguntza publikoak emateko orduan ezinbestekoa da publikotasun-printzipioa betetzea. Hori dela eta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko otsailaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez –agindu horretan arautu zen Bateratu COVID-19 programa, zeinaren bidez laguntzak ezartzen baitira sendotze-jarduketak egiten dituzten eta COVID-19ak kaltetu dituen enpresentzat, eta enpresa interesdunei banan-banan jakinarazi ondoren laguntzak emateko ebazpena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da onuradunen zerrenda.

Horiek horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko otsailaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2022ko onuradunen zerrenda (ikusitako eranskina); agindu horren bidez, Bateratu COVID-19 programa arautu zen, zeinaren bidez laguntzak ezartzen baitira sendotze-jarduketak egiten dituzten eta COVID-19ak kaltetu dituen enpresentzat.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 16a.

Industriako sailburuordea,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.

2022ko azaroaren 25a, ostirala

ERANSKINA

2022KO BATERATU COVID-19 PROGRAMA

Izen Soziala	Itzuli behar ez den laguntza (euro)
Fundiciones Fumbarri-Durango, S.A.	271.462,50
Lanik I, Sociedad Anónima	50.750,00
Lagumar Seas, S.L.	85.900,00